

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

4996

EBAZPENA, 2021eko irailaren 8koa, Kulturako sailburuordearena, kultura-arloetako jaialdiak antolatzekeo dirulaguntzak emateko balorazio-batzordearen batzarkideak izendatzen dituen eta haren osaera argitaratzen duena.

Ikusi da 2021. urtean kultura-arloetako jaialdiak antolatzekeo dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen duen Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2021eko maiatzaren 18ko Agindua.

Kontuan izan da agindu horren 13. artikulua aipaturiko dirulaguntzak emateko balorazio-batzorde batek ebazpen-proposamena egingo duela eta batzorde horren kideak izendatzea eta haren osaera argitaratzea Kulturako sailburuordearen ebazpen baten bidez emango direla jasotzen duela.

Horiek horrela,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Balorazio-batzordearen kideak izendatzea eta batzorde horren osaera argitaratzea.

Mahaiburua: Aitziber Atorrasagasti Calcedo anderea (Kultura Sustatzeko zuzendaria).

Batzordekideak: Iara Solano andrea, Elisabeth Perez andrea, Vanessa Fernandez andrea eta Aitor Bengoetxea jauna.

Rafael Elizondo Saiz jaunak (Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko teknikaria) jardungo du idazkari zereginetan.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadila agintzea, jende guztiak izan dezan horren berri.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 8a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.